


# Lehen Hezkuntzarako ekitaldi hezitzailea antolatzen eta sortzen



Ikasle Kuadernoa

Silvia Arribas

Carmen de las Cuevas

Estibaliz Jz. de Aberasturi



## Aurkibidea

|                                    |   |
|------------------------------------|---|
| 1. Sarrera .....                   | 1 |
| 2. Proiektuaren Eszenarioa .....   | 1 |
| Adartz nagusiak .....              | 1 |
| 3. Metodologia.....                | 2 |
| Ardatzen araberako jarduerak ..... | 3 |
| 4. Ebaluazioa .....                | 5 |
| 5. Eranskinak .....                | 7 |

# 1 SARRERA

Gai hau LHko Tailerrak berezitasuneko gaia dugu. Lau arloek osatzen dute eta modu koordinatuan landuko da. Gai honen izaera batez ere praktikoa izango da eta ikaslegoaren parte hartzea aktiboa ezinbestea egiten da.

Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpeneko arloetan, zein gizarte zientzien didaktikan, aurreko urteetan barneratutako eduki ezberdinak uztartuz, proiektu eragile bat planteatzen dizuegu. Laugarren eta azkenengo graduko ikasturte honetan, lan-mundurako prest egon zaitzeten ikasitakoa martxan jarri. Eraginkorra izan daitezkeen zenbait hezkuntza estrategiak egiteko bideak aurkitu eta praktikaratuko dituzte.


## 2 Proiektuaren Eszenarioa



Eskola bateko guraso elkartearen aldetik eskaera hau jaso duzue: kurtso amaieran eskolan antolatuko den ekitaldia prestatzea. Eskaera honi aurre egiteko enpresa bat sortu beharko da, non ekitaldiaren elementu guztiak kontutan hartzen diren: azpiegiturak, artistak, baliabide materialak eta teknologikoak, espazioak... Enpresak gero, zer ekitaldi eramango duen aurrera erabaki beharko duzue, diseinatu eta antzeztu/taularatu.

### Ardatz nagusiak

Proiektu honek 3 ardatz nagusi ditu:





Hiru galdera hauei erantzuna

bilatu behar diezue:



Nola eratuko zenuke haurrentzat ekitaldi hezitzaileak antolatzeke empresa bat?



Nola diseinatuko zenuke ekitaldi bat, zer pausu jarraitu?



Antzezpena: nola gauzatuko zenuke ekitaldia?

### 3 Metodologia

Gai hau aurrera eramateko erabiliko dugun metodologia ikasketa kooperatiboan oinarritzen da. Elkar ekintza eta talde lana ezinbestekoak dira metodologia hau eraginkorra izan dadin.

**Ikasle guztien artean (Ikasle-taldea), proiektu bakarra garatuko duzue.** Proiektu hau garatzeko beharrezkoak diran lanak, azpitaldetan (lan-taldetan) garatuko dituzue eta zati ezberdin guztien baturaren azken emaitza, proiektu bakarra izango da. Ikasleak, enpresa sortzeko eta ekitaldia aurrera eramateko beharrezkoak diren agente guztien rola ezagutuko dituzue.

Lan taldeak aldakorak izango dira, non denok rol ezberdinak izango dituzuen eta pertsona ezberdinak ezagutu eta lanean aritzeko gaitasuna garatuko duzuen.

## Ardatzen araberako jarduerak

### I. Enpresa bat sortu



(1. Astea)

- Enpresa bat sortzeko beharrezkoak diren elementu guztiak ezagutu (2ko taldeetan):

- ♣ Zer dakigu eta zer jakin behar dugu proiektua garatzeko?
- ♣ Entregablea: Fitxa batean jaso ezagutzen eta ikasi duzuen

- Merkatua ezagutu eta bezero motak eta antolakuntza ezberdinak aztertu eta aukeratu (3ko taldeak):

- ♣ Bezero potentzialak zeintzuk izan daitezkeen aztertu, aurreko fitxa kontutan izanik.
- ♣ Entregablea: Irakasleak diseinatutako txantiloia bete: kontestua, aisialdia, hezkuntza, kopurua, e.a.

-Enpresa baten barne antolakuntza ezagutu eta garatu.(4ko taldeak):

- ♣ Informazio bilaketa: enpresa baten oinarriak aztertu
- ♣ Enpresa ereduaren lehiaketa.
- ♣ Entregablea: Posterra + organigrama barne

Talde osoak (Ikasle-taldeak), enpresa definituko du: honen ezaugarriak, egin-beharrekoak, e.a.

## II. Diseinua egin



- Ekitaldi bat diseinatzeko behar diren elementuak ezagutu eta erabili:

- ♣ Zer dakigu eta zer jakin behar dugu ekitaldia garatzeko? (4/5ko taldeetan)
- ♣ Entregablea: Fitxa batean jaso ezagutzen eta ikasi duzuen

(2. Astean)

- Ekitaldi baten gidoia lantzea (6ko/7ko taldeak)

- ♣ Gaia proposatu eta aukeratu. Gidoiaren estruktura definitzea
- ♣ Entregablea: Gidoia landuta aurkeztu

- Ekitaldiaren pausuak modu egokian definitzea (6ko/7ko taldeak)

- ♣ Zeintzuk dira ekitaldiaren pausuak eta Rolak. Banatu ekitaldiaren gidoia eta pausuak definitu
- ♣ Entregablea: Gidoia, bakoitzaren rola eta zeregina zehaztuta

Ekitaldia antolatzeke egin-beharrekoak: agenteak, interes-taldeak,...Guzti hau egiteko lan-taldeak eratuko dira.

## III. Ekitaldiaren antzezpena (Taularatzea)



-Ikuskizuna taularatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak ezagutzea

- ♣ Zer dakigu eta zer jakin behar dugu ikuskizuna taularatzeko? (6ko/7ko taldeetan)
- ♣ Entregablea: Ezagutza arlo bakoitzean (Gizarte, Musika, Plastika eta Gorputz adoerazpena) zehaztu behar diren baliabideak

(3-10 Astea)

- Ikuskizuna taularatzeko beharrezkoak diren **elementu guztiak sortu**

- ♣ Gizarte tailerrean garatutako istorioa

- ♣ Musikaren materiala eta tenporizazioa, egokitzea gidoiari.
  - ♣ Plastikako atrezzoak: jantziak, dekoratu objektuak, argiak, kartela, esku programa.
  - ♣ Gorputz adierazpenaren eskemak.
  - ♣ Gidoia, eszenografia eta atrezzoak eratzeko dokumentazio lana.
- Ikuskizuna taularatzea (10. astea)
- ♣ Ikasle talde bakoitzak rolak finkatu eta zereginak entseiatu.
  - ♣ Entregablea: Taularatzea

Antzezpena sortzeko gai bakoitzeko bete-beharrak minimo batzuk errespetatu. Talde osoak ekitaldi bat antolatuko du non ikasle-talde osoak parte hartuko duen.

#### 4 Ebaluazioa

Aurrean aipatu dugun bezela, ardatz bakoitzeko entregable batzuk bete behar dira. Guzti horiek, irakasleek ezarritako **data barnean**, e-gelan entregatu (igo) behar dituzte. Epea kanpo entregatzeak eragin negatiboa izango du azken kalifikazioan. Lan guztiak, azken PORFOLIOAN jasoko dira eta irakasleok orduan kalifikatuko ditugu.

Ebaluaketa aurrera eramateko, ondoren zehazten diren irizpideak izango ditugu kontutan:

Ikuskizunaren antzezpena %30 (10. Astea)

- o Ikuskizunean taldeka lana nola egiten duzuen, entseietako parte hartzea, azken antzezpenerako egin dituzten egokitzeak nola egokitu dituzten, azken antzezpena.
- o Irakasleok errubrika erabiliko dugu auskarri bezela. Bertan zehazten dira kontutan izango duguna (1. ERANSKINA).

Azken txostena %30 (13. Astea)

- o Porfolioa izango da prozesuan egindako entregable guztiak

jasoko dituen (PORFOLIO: 2.ERANSKINA). Bertan, enpresa diseinua, Ikuskizunaren ekoizpena eta Ikuskizunaren taularatzea ebaluatuko dira.

Bakarkako informe %40 (13. Astea)

o Prozesuaren hausnarketa kritikoa nola egiten duzun: idazketa adierazpena eta biziutakoaren balorazioa ebaluatuko da. Erabiliko ditugun tresnak izango dira:

- o Asistentzia (%10) (SINADURA ORRRIA, hau irakasleek kudeatuko dute).
- o Autoebaluaketa (3.ERANSKINA): Galdetegia (%10): Informazioaren erabilera, justifikazioa, sortze-prozesuan lanaren kudeaketa eta kalitatea, parte-hartzea (On-line).
- o Txosten informatua (%20): aurkezpenaren ondorioak: ikuskizunaren ahuleziak, indar guneak eta etorkizunera begira aplikazioa hezkuntzan azalduz (4.ERANSKINA).



**5 Eranskinak**

# ERANSKINAK

# 1.ERANSKINA: ERRUBRIKA

| EMAITZA                 | 4-BIKAINA   | 3-ONA   | 2-NAHIKOA   | 1-HOBETZEKOA   |
|-------------------------|---|---|---|--|
| EGOKITASUNA             | Lortutako produktua bikain egokitzen da planteatutako helburuekin   | Lortutako produktua ongi egokitzen da planteatutako helburuekin   | Lortutako produktua maila apalean egokitzen da planteatutako helburuekin  | Lortutako produktua zail samar egokitzen da planteatutako helburuekin  |
| ALDE TEKNIKOA           | Gidoi teknikoa bikaina da, Musika,plastika eta gorputz adierazpeneko elementuak bikain uztartu dira.<br>Originaltasuna erakusten du. Ez dira aurkezpenean hutsegiterik ikusten. | Gidoi teknikoa ona da, Musika,plastika eta gorputz adierazpeneko elementuak ondo uztartu dira.<br>Originaltasuna erakusten du. Ez dira aurkezpenean hutsegiterik ikusten. | Gidoi teknikoa ona da, Musika,plastika eta gorputz adierazpeneko elementuak nekez uztartu dira.<br>Originaltasuna erakusten du. Aurkezpenean hutsegiteak ikusten dira | Gidoi teknikoa eskasa da, Musika,plastika eta gorputz adierazpeneko elementuak nekez uztartu dira.<br>Originaltasunik ez de erakusten. Aurkezpenean hutsegiteak ikusten dira |
| ALDE PLASTIKOA          | Diseinu eszenografikoaren elementu estetiko-plastikoak bikain bideratu eta egokitu dira adierazi nahi zen mezura.   | Diseinu eszenografikoaren elementu estetiko-plastikoak ondo bideratu eta egokitu dira adierazi nahi zen mezura.   | Diseinu eszenografikoaren elementu estetiko-plastikoak adierazi nahi zen mezura modu eskasean egokitu dira.<br>Lan plastikoak hobetu beharko lukete.                  | Diseinu eszenografikoaren elementu estetiko-plastikoak ez dute bilatutako mezua adierazi.<br>Diseinuetan eta lan plastikoetan egindako lana eskasa izan da.                  |
| ALDE MUSIKALA           | Prestatutako musika modu bikain batean egokitzen zaio emanaldiaren/aurkezpenaren irudia eta mezuari.  | Prestatutako musika ondo egokitzen da.  | Prestatutako musikak bere helburua betetzen du baina material musikala hobetu beharko lukete.   | Akats nabariak, hutsuneak atzematzen dira.   |
| ALDE HISTORIKOA         | Gidoiak zein eszenografia eta atrezzoak irizpide historikoetan bikaintasunez oinarritu dira. Ikuskizunak modu bikainean zabaldu ditu  | Gidoiak zein eszenografia eta atrezzoak irizpide historikoetan modu egokian oinarritu dira. Ikuskizunak modu egokian zabaldu ditu alde historikoak.                       | Gidoiak zein eszenografia eta atrezzoak hala nola hartu ditu koptutan irizpide historikoak.<br>Ikuskizunak modu eskasean zabaldu ditu alde historikoak                | Irizpide historikoak ez dira kontutan hartu gidoia, eszenografia eta atrezzoak eratzekoan.<br>Ikuskizunak modu desegokian zabaldu ditu alde historikoak                      |
| ALDE FISIKO-KORPORALA   | Aukeratutako jarduera gimnastika eta akrobatikoak bikain lotu dira.<br>Laguntzak dinamikoak izan dira.<br>Mugimenduaren batekotasuna  | Aukeratutako jarduera gimnastika eta akrobatikoak ondo lotu dira.<br>Laguntzak dinamikoak izan dira.<br>Mugimenduaren batekotasuna adierazi da.                           | Aukeratutako jarduera gimnastika eta akrobatikoak nekez lotu dira.<br>Laguntzak dinamikoak izan dira.<br>Mugimenduaren batekotasuna nekez adierazi da.                | Aukeratutako jarduera gimnastika eta akrobatikoak nekez lotu dira.<br>Laguntzak ez dira dinamikoak izan.<br>Ez da mugimenduaren batekotasuna adierazi.                       |
| SORMENA, ORIGINALTASUNA | Produktuak sormen handiko lana erakusten du eta ideia originalak gauzatu ditu.  | Produktuak badu aipagarria den sormenezko ekarpenik eta ideia originalik ere badago aipatzerik.   | Produktuak sormen-izpi batzuk erakusten ditu, eta zenbait zantzu originala aipa daiteke.  | Produktuak ez du sormen-lanik erakusten ez eta ideia originalik ere  |

## 2. ERANSKINA: PORFOLIO GIDOIA, CDan

1. Enpresa baten sormena: barne antolakuntza eta garapena
  - 1.1. Proiektuaren deskribapena
  - 1.2. Enpresabaten deskripzioa, posterra eta organigrama
2. Ekitaldiaren diseinua: pausuak definitu
  - 2.1. Ekitaldiaren gidoi orokorra
  - 2.2. Bakoitzaren rola
  - 2.3. Zereginen definizioa
3. Ekitaldiaren ekoizpena: ikuskizunaren taularatzea
  - 3.1. Musika:
    - 3.1.1. Musika aukeraketa
    - 3.1.2. Musika gidoia
    - 3.1.3. Musika eskemak
    - 3.1.4. Musika artxiboak
    - 3.1.5. Ekitaldiaren audioa
    - 3.1.6. Musika eta ahotsak ekitaldian
  - 3.2. Plastika: (irudien bidez, argazki edo marrazkiak)
    - 3.2.1. Jantzien bozetoak eta materialeen zehaztapenak
    - 3.2.2. Espazioa: eszenaren bozetoa
    - 3.2.3. Atrezzo elementuak, bozetoak
    - 3.2.4. Argidiseinua
    - 3.2.5. Ekitaldiaren kartela
  - 3.3. Gorputz adierazmena (argazkien bidez)
    - 3.3.1. Gorputz mugimenduaren gidoia: pausuketa emaitzak
  - 3.4. Gizarte zientziak:
    - 3.4.1. Gidoirako gaiaren proposamena
    - 3.4.2. Dokumentazio txostena: gidoirako, eszenografia eta atrezzorako
4. Beste batzuk: prozesuan egindakoa eta aurretik aipatu ez direnak

3. ERANSKINA: GALDETEGIA(Autoebaluaketa)

Mesedez, ondoren agertzen diren galderei erantzun zure adostasun maila adieraziz: 1=Ez nago batere ados 2= Ez ados 3=Ez bata ez bestea 4= Ados 5= Guztiz ados.

|  |   |   |   |   |   |
|--|---|---|---|---|---|
|  | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|--|---|---|---|---|---|

INFORMAZIO ugari eta esanguratsua bilatu duzu:

|  |  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|--|
| Enpresa bat montatzeko                     |  |  |  |  |  |
| Ekitaldi bat diseinatzeko                  |  |  |  |  |  |
| Ikuskizun bat taularatzeko                 |  |  |  |  |  |
| Gidoia, eszenografia eta atrezzo burutzeko |  |  |  |  |  |

Zuen lanerako baliagarria izan den **INFORMAZIOA** aurkitu duzu:

|  |  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|--|
| Enpresa bat montatzeko                     |  |  |  |  |  |
| Ekitaldi bat diseinatzeko                  |  |  |  |  |  |
| Ikuskizun bat taularatzeko                 |  |  |  |  |  |
| Gidoia, eszenografia eta atrezzo burutzeko |  |  |  |  |  |

LANAK garaiz entregatu dituzu:

|  |  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|--|
| Enpresa bat montatzeko                     |  |  |  |  |  |
| Ekitaldi bat diseinatzeko                  |  |  |  |  |  |
| Ikuskizun bat taularatzeko                 |  |  |  |  |  |
| Gidoia, eszenografia eta atrezzo burutzeko |  |  |  |  |  |

Zure LANAREN kalitatea bikaina izan da:

|  |  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|--|
| Enpresa bat montatzeko                     |  |  |  |  |  |
| Ekitaldi bat diseinatzeko                  |  |  |  |  |  |
| Ikuskizun bat taularatzeko                 |  |  |  |  |  |
| Gidoia, eszenografia eta atrezzo burutzeko |  |  |  |  |  |

|                              |  |  |  |  |  |
|------------------------------|--|--|--|--|--|
| TALDEA erregulariki bildu da |  |  |  |  |  |
| TALDEKO beti egon zera       |  |  |  |  |  |

TALDEAN, aktiboki parte hartu duzu:

|  |  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|--|
| Enpresa bat montatzeko                       |  |  |  |  |  |
| Ekitaldi bat diseinatzeko                    |  |  |  |  |  |
| Gidoia, eszenografia eta atrezzoak burutzeko |  |  |  |  |  |

---

#### 4. ERANSKINA TXOSTEN INFORMATUA

##### AURKIBIDEA

##### EGINDAKO LANAREN ONDORIOAK:

1.- Ikuskizunaren ahuleziak

2.- Ikuskizunaren indar guneak

3.- Etorkizunera begira aplikazioa hezkuntzan